

# **bai** aldizkaria

Bai Euskarari Elkarteen aldizkaria | 38 zk | 2024ko ekaina



LAN ETA BIZI  
EUSKARAZ

***Txinparta bizia  
euskararentzat***

**#BAIEUSKARARI SARIAK2024**



Ibon Arrizabalaga de Mingo  
[Zuzendaria]

## Txinparta bizia euskararentzat

Lan munduan euskara biziartzen duten txinpartak. Horrela irudikatu ditugu aurtengo Bai Euskarari saridunak. Argi-printzak ainubean. Izarño jostariak gau beltza edertzen. Zeren, oraindik ere, nahi baino dezente ilunagoa da alor sozioekonomikoa euskararentzat. Egin kontu, ez dira ehuneko batera iristen Euskal Herrian euskara plana duten edo euskararen aldeko neurriak hartzeagatik ziurtagarria jasotzen duten enpresa, elkarte edo saltokiak. Sugarren faltan, txingarrak eta txinpartak.

Horregatik, egiten duten ahalegina aitortu nahi izan diegu hiru sarituei. Nola diren kontuak! Egoera normaldu batean, ez genuke ahaleginik egin behar berezko dugun hizkuntzan lan egiteagatik. Baina horixe da biziberritze prozesuan dauden hizkuntza-komunitateetako kide garenoin dago-kigun patua. Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzen duten entitateek, horixe erabaki dute: ilunpean bizi baino, nahiago dutela euskararen txinpartari bizirik eutsi. Lanean ere, euskaraz eroso aritu nahi dutela. Etxean bezala. Kanean bezala.

Kide Aholkularitzak bide-laguntza ematen die ezin konta ahala enpresa txiki eta autonomori. Zerbitzu integrala eskaintzen die, sorreratik bertatik: aholkularitza fiskal, laboral eta juridikoa. Eta sostengua. Euskaraz, gure

hizkuntzan aritzeak ematen duen gertutasunarekin.

Izarkom Euskal Herriko telekomunikazio kooperatiba da. Internetera sarbidea eskubidea dela iritzita, denek kalitatezko konexioa eta telefonia zerbitzuak eskaintzea du helburu. Euskaratik, bertako hizkuntza ardatz hartuta. Nola, bestela?

Ulma Taldeak mundu mailako dimentsioa du. Lantokiak eta bezeroak, han eta hemen. Hala ere, euskarari lehentasuna ematen darraite, urtea joan, urtea etorri. Lanerako hizkuntza euskara dela baitiote haien estatu-tuek eta Oñatin dituzten erro saketek.

Hiru adibide, hiru eredu. Euskara lan munduan hizkuntza bizia izan dadin ekarpena egin dutenak. Zorionez, hiru ez, Bai Euskarari komunitate osoa ari gara gure hizkuntzaren erabilera sustatzeko lanean. Euskara ez da traba, aukera baizik. Euskara da gure lan-tresna. Garaia da euskara ikus dezagun ondare kultural hutsetik harago: euskarak mugitzen ditu gure industria, gure konexioak, gure enpresa txikiak. Euskara, motor ekonomikoa ere bada.

Izan daitezela hiru hauek, gaurko saridunak, euskara biziartzen duten beste hamaika txinparten pizgarri. Ea sugarrak ere biziartzen ditugun!

## Bai Euskarari Sariak 2024

**Xabier Barinaga-Rementería eta Oihana Amundarain** 3

KIDE Aholkularitzako bazkideak

**Iker Garaialde** 6

IZARKOMeko zuzendaria

**Ibon Calvo** 9

ULMA Taldeko lehendakaria

**Elkarrengandik Ikasiz** 11

Solasaldiak

**Komunitatearen txokoa** 13

- Barañaingo 38 enpresak eta saltokik jaso dute Bai Euskarari Ziurtagiria
- Euskaraz lan egiteko eta bizitzeko bidean eredu dira Gernika-Lumoko 23 entitate
- 41 entitate berri
- Batu Gasteizko Euskararen Mapara!
- Euskara lanean txertatzeko praktika onak, Euskaragileen eskutik

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkarte  
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain  
t. +34 943592148

38 Cordeliers karrika - 64100, Baiona  
t. +33 603494365

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo

Rogelia de Alvaro Elkarte Etxea A.1.1.  
Panama, z/g - 01012, Gasteiz

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina,  
13. bulegoa 31014 Iruñea

Zuzendaria: Ibon Arrizabalaga de Mingo

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:  
Bai Euskarari Elkarte eta Arteman  
Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez  
Argazkiak: Bai Euskarari Elkarte,  
Arteman Komunikazioa, KIDE Aholkularitza,  
Izarkom eta ULMA.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak

Banaketa: Bai Euskarari Elkarte

Lege gordailua: SS-497-2010



LAN ETA BIZI  
EUSKARAZ

baieuskarari.eus



## XABIER BARINAGA-REMENTERIA ZABALETA ETA OIHANA AMUNDARAIN ZUBILLAGA KIDE AHOLKULARITZAKO BAZKIDEAK

Kide Aholkularitzak enpresa eta partikularrei aholkularitza juridikoa eta ekonomikoa eskaintzea du helburu. Eta aholkularitza hori euskaraz egiten dute, bidean aurkitu dituzten zenbait oztopori aurre eginda. 'Zerbitzua euskaraz' ziurtagiria dute eta Bai Euskarari Saria jaso dute aurten.

# “Sektore honetan euskara normalizatzeko hamarkadak pasako dira”



Leitzako bulegoko lantaldea.

### Zer da zuentzat Bai Euskarari saria jasotzea?

Ilusio handia egiten digun saria da. Gure lanean euskararen alde pausoak egiten eta zerbitzua euskaraz eskaintzen asko saiatu gara. Izan ere, gure sektorean ez da oso erraza.

Administrazioarekin egiten dugu lan, batik bat, eta Gipuzkoan, adibidez, errazago ditugu zenbait kontu euskaraz kudeatzea, baina Nafarroan zailtasun ugari aurkitzen ditugu. Gure bezeroekin eta administrazioarekin

ere euskarazko zerbitzua ematea aldarrikatzen dugu.

Lan-taldea % 100 euskalduna da eta denok gaude zerbitzua euskaraz emateko moduan, izan gai juridikoa, laborala edo fiskala.

### Euskarak zein leku du zuen egunerokoan?

Logikoa denez, euskaraz ez dakitenekin gaztelaniaz aritzen gara, baina euskaraz dakitenekin zerbitzu osoa euskaraz da. Batzuetan, arazoa iza-

ten da erabiltzen dugun arloko jargoia ez dela ezaguna eta gaztelaniaz ohituagoak gaudela, agian, zenbait kontzeptu entzutera. Horregatik, euskaraz jakin arren zenbait dokumentu gaztelaniaz eskatzen dizkigute batzuek. Batez ere, adinean gora doan jendearekin gertatzen zaigu, euskara tekniko ez dutelako hain erraz menderatzen.

Gai bakoitzak bere hizkera teknikoa du: Gizarte Segurantzak berea du, Ogasunak ere berea, eta ñabardu-

rak daude Gipuzkoan eta Nafarroan, adibidez. Konparazio batera, kirol-tako kazetariak darabilten euskara zabaldu da, baina euskaraz hasi zirenean arrotza egiten zitzaigun. Hemen berdin gertatzen da; euskara tekniko-juridikoa badago, baina kalean BEZaren inguruko artikulua euskaraz irakurri eta txanpon gutxi botako dizkizute sari moduan [barreak].

Gure euskarazko hizkera teknikoak zailtasun erantsia du berria izateagatik.

### Zein da euskararen egoera zuen sektorean?

Aholkularitza geroz eta gehiago gaude zerbitzua euskaraz eskaintzeko gaitasuna dugunak; nabarmena da aurrerapausoa. Orain urte batzuk Ogasunean oso zaila zen euskaraz harremana izatea, baina orain Gipuzkoan, Nafarroan eta Bizkaian badaude aukera batzuk. Notarioak euskaraz bilatzea zailagoa da. Eta, zenbait kasutan, euskaraz dakien ofiziala egoten da, baina notarioa sinatzera etortzen da euskaraz ezer jakin gabe; ofizialarekin fidatu beharko du. Nafarroan notario euskaldun bat dugu, Gipuzkoan gutxi daude, eta Bizkaian ere oso gutxi. Gaur egun, oraindik, euskaraz sinatu ahal izateko, notarioekin horrelako borroka izatea hutsune handia da.

Ogasunaren ikuskaritzan edo Gizarte Segurantzian, ahaztu euskara. Eraginkor izan nahi bada, gaztelaniaz egitera behartzen zaituzte.

Arazoak daude erabiltzen ditugun

programekin ere. Enpresen erregistroetan ere bai. EAEn badago esfortzu bat hori euskalduntzen joateko, baina Nafarroan gorabehera asko ditu, gobernuaren araberakoak.

Sektore honetan euskara normalizatzeko hamarkadak pasako dira. Euskara juridikoa badaude lan handia egin duten abokatuak eta hari da normalizatzen. Fiskalitateak eta besteek tekniko-astun-zailak izaten jarraitzen dute.

### Uste duzue hizkuntzak baduela garrantzia gertuko zerbitzua eskaintzeko?

Kode sekretu bat bezala da. Leitzan euskara ez jakiteak urruntasuna emango liguke. Euskara teknikoa menderatzea gauza bat da. Eta ikusten badute, gainera, Leitzako euskara menderatzen duzula, hor beste harreman bat sortzen da. Gipuzkoan eta Bizkaian ere baloratzen dute zerbitzua euskaraz ematea, eta etorri izan zaizkigu zenbait bezero zerbitzua euskaraz jaso nahi zutelako.

Euskarak, hizkuntza izateaz gain, lotura emozional eta kulturala sortzen du, eta hori oso garrantzitsua da harremanetan. Euskara menderatzen dutenen artean konexio berezia sortzen da, eta horrek hurbiltasuna eta konfiantza areagotzen ditu. Leitzan, bereziki, euskara maila altua izateak komunitatearen parte sentiarazten zaitu, eta bezeroek hori nabari dute. Euskal Herriko beste eskualdeetan ere, bezeroak sarritan euskara hautatzen dute zerbitzu

hurbilagoa eta pertsonalagoa jasotzeko. Hori dela eta, euskara ezagutzeta eta erabilera sustatzea, bai Leitzan eta bai Gipuzkoan eta Bizkaian, garrantzi handikoa da.

### Zein zerbitzu eskaintzen dituzue Kide Aholkularitzan?

2008an sortu genuen Kide Aholkularitza. Bi aholkularitzaren fusioetik eratu genuen kooperatiba. Gaur egun, bi bulego ditugu: bat Donostian eta bestea Leitzan, Nafarroan. Batez ere bezero txikiei zuzentzen gaitzaizkie: autonomoak, enpresa txiki eta ertainak, kooperatibak eta antzekoak. Gure helburua tamaina horretako bezeroei aholkularitza integrala eskaintzea da. Enpresaren diseinutik hasi eta, nolabait esateko, enpresaren amaiera arteko zerbitzua eman nahi dugu. Izan ere, hartzekodunen konkurtsoak kudeatzeko gai gara, eta beste aholkularitza batzuekin ere elkarlanean aritzen gara arlo horretan. Alderdi ekonomikoa duen edozein proiekturi aholkularitza integrala eskaintzen diogu.

### Zerk egiten zaituzte berezi?

Gure berezitasuna da aholkularitza integrala eskaintzen dugula enpresaren edo proiektuaren fase guztietan,

**Ogasunaren ikuskaritzan edo Gizarte Segurantzian, ahaztu euskara. Eraginkor izan nahi bada, gaztelaniaz egitera behartzen zaituzte.**

**lansarean**



LAN ETA BIZI  
EUSKARAZ

**EUSKARAZKO  
LAN-ATARIA**  
LAN BILA ZABILTZA?  
LANA ESKAINTZEN DUZU?

[lansarean.eus](http://lansarean.eus)





Donostiako bulegoko lantaldea.

hasieratik amaierara arte. Horrek esan nahi du bezeroekin elkarlanean aritzen garela ideiarekin sorreatik, negozioaren diseinua eta garapena barne hartuz, hazkunde eta zabalkundearen faseak kudeatuz, eta beharrezkoa izanez gero, itxiera edo birsorkuntza prozesuetan ere lagunduz. Proiektu bakoitzaren fase bakoitzean espezializatutako aholkularitza ematen dugu, ekonomia, finantza, lege eta antolaketa arloetan, gure bezeroei arrakasta lortzeko tresna eta ezagutza guztiak eskainiz. Honela, gure bezeroek lasaitasun osoz lan egin dezakete, jakinda profesional talde bat dutela atzean, enpresaren edo proiektuaren fase guztietan sostengua eta aholkularitza emango diena.

**Enpresekin lan asko egiten duzue. Osasuntsu daude zuen bezeroak?**

Gure pertzepzioa da, oro har, jarduera osasuntsu dagoela, baina badaude zenbait zantzu ez direnak oso positiboak. Azken urteotan, marjinak nabarmen murriztu dira eta, ondorioz, irabaziak ere jaitsi egin dira; horrek esan nahi du, une honetan, galerak izatera klik bat besterik ez dagoela. Iazko urte bukaeran eta aurtengo hasieran, zenbait sektortan moteltze bat ere nabaritzen ari gara. Aldi berean, kostuak abiadura handian igo dira, baina marjinak ez dira abiadura berdinean hazi, eta horrek proiektu ekonomikoen errentagarritasuna mehatxupean jar dezake.

**Zein erronka dituzue datozen urteetarako?**

Alde batetik, betiko barne-erronkak ditugu, eta horien artean daude antolaketa hobetzea, bi bulegoen

arteko integrazioa erraztea, eta bi lan-talde izatetik lan-talde bateratua-go bat izatera igarotzeko prozesua. Honek gure eraginkortasuna handituko du eta bezeroei ematen diegun zerbitzua hobetu ahal izango dugu, barne-komunikazioa eta koordinazioa indartuz.

Bestetik, erronka handia adimen artifizialaren agerpenak ekarriko digu. Uste dugu adimen artifiziala bortizki sartuko dela sektore askotan, eta horrek lanpostu asko galtzea eragin dezake. Hala ere, erronka hau aukera gisa ere ikusten dugu. Gure arloan adimen artifiziala nola aplikatu genezakeen ikasten ari gara, batez ere barne prozesuak arintzeko eta automatizatzen. Horrela, baliabide gehiago izango genituzke beste zenbait zerbitzu eskaintzeko eta gure bezeroei arreta pertsonalizatuagoa emateko. Gaur egun, gure sektorerako sortuta dauden adimen artifizialeko erremintak hasierakoak dira, baina teknologiaren garapenak aurrera egin ahala, hauek gero eta sofistikatuagoak eta eraginkorragoak izango dira. Adimen artifizialak industrializazioarekin gertatu zeneren moduko iraultza ekarriko duela uste dugu, eta prest egon behar dugu aldaketa horri aurre egiteko eta gure onurarako aprobetxatzeko.

**Alderdi ekonomikoa duen edozein proiekturi aholkularitza integrala eskaintzen diogu.**

**#BaiPraktikaEgokia**

**Euskaraz lan egiteko  
20 jarraibide**



**baleuskarari.eus**

IKER GARAIALDE ETXABURU IZARKOMEKO ZUZENDARIA

# “Argi eta garbi adierazi nahi dugu euskaraz lan egiten dugula; zerbitzua euskaraz ematen dugula eta eman nahi dugula”

Euskal Herriko telekomunikazio kooperatiba da Izarkom. Interneterako konexioa gizarte eskubidetzat hartuz, Euskal Herri osorako kalitatezko konexioa eta telefonia zerbitzuak prezio eskuragarrietan eskaintzea da bere helburua. Euskara ardatz duen proiektua ere bada eta Bai Euskarariren ‘Zerbitzua eta Lana euskaraz’ ziurtagiria dute. Bai Euskarari Saria jaso dute aurten.

## Bai Euskarari Saria jaso duzue. Zer da zuentzat sari hau jasotzea?

Egin dugun lanaren aitortpena izan da. Sorpresa ere izan da guretzat oso naturala izan baita hasieratik proiektua euskaraz garatu behar genuela eta horregatik saririk jasotzea ez genuen inondik inora espero.

## Hasieratik euskara izan duzue ardatz, beraz.

Bai, baina ez zen erabaki kontzientea izan. Ez genuen planteatu ere egin proiektua zein hizkuntzatan aurrera atera behar genuen. Espainiako enpresa batek planteatu ere egiten ez duen moduan zein hizkuntzatan egin behar duen. Taldea osatu genuenean denok euskaldunak ginen, euskaraz lanean hasi ginen eta ez zitzaigun burutik pasa ere egin beste hizkuntza batean garatuko zen proiektua izango zenik. Badugu anekdota bat, gainera, kontu honekin: Izarkom sortu eta lehenengo egunetan ekonomia sozialeko azoka bat egin zen eta eskuorri batzuk prestatu genituen bertarako, euskara hutsean. Adineko gizon bat gerturatu zitzaigun eta galdetu zigun

ea gaztelaniaz ba ote genuen informaziorik. Orduan konturatu ginen agian erdaraz ere atera behar genuela eskuorria.

Bazkideei galdetzen diegu ea zein hizkuntzatan jaso nahi duten informazioa, euskara hutsean edo euskaraz eta gaztelaniaz edo frantsesez. Bazkideen % 96ak euskara hutsean eskatzen du.

Behin kontzientzia hartuta euskara kudeatu behar genuela, Hizkuntza Politika prestatu genuen, bazkideei gure jarreraren berri emateko. Badaude informazio batzuk, adibidez, zeinak ezin ditugun bi hizkuntzatan bidali, aplikazioak hizkuntza bakarra uzten duelako. Euskaraz bidaltzen dugu informazio hori eta motza eta ulertzeko erraza izaten da. Gainera, beti jartzen ditugu euskara hutsezko informazioa ulertzeko erraztasunak.

## Zergatik eskuratu zenuten Bai Euskarari Ziurtagiria?

Euskaraz lan egiteko erabaki kontzientea hartu genuen eta adierazi nahi izan genuen guk lan egin eta zerbitzua eskaini euskaraz egiten

genituela. Badago jende asko, automatikoki, gauden sektorean gaudelako, erdaraz zuzentzen zaiguna. Ziurtagiriarekin esaten diegu gurekin kontaktuan jarriko direnei gure oinarritzko hizkuntza euskara dela. Horregatik, hasieratik erabaki genuen Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko eta webgunean ere hori oso argi azaltzea.

Argi eta garbi adierazi nahi diogu jendeari euskaraz lan egiten dugula eta zerbitzua euskaraz ematen dugula eta eman nahi dugula.

## Zer egiten duzue Izarkomen?

Izarkom telekomunikazio operadorea da eta beste operadoreen zerbitzu berberak ematen ditu: telefonia finkoa, telefonia mugikorra eta Interneteko konexioa. Irrati-lotura bidezko Internet zerbitzua ere es-

**Euskal Herrian telekomunikazio burujabetza lantzen joateko bidea da Izarkom**

kaintzen dugu, haririk gabe. Izarkom, baina, ez da operadore hutsa: telekomunikazio burujabetzaren arloan pausoak emateko herri proiektua da. Interneterako konexioa eskubidea da eta Euskal Herrian eskubide hori gauzatzeko proiektua da gurea. Geroz eta oinarritzko zerbitzu gehiago eskaintzen dira Internet bidez eta guztiok izan beharko genuke Interneterako konexioa bermatuta. Baina gaur egun ez da horrela: Interneterako konexioa beste merkantzia bat da eta etekin handiak ematen dituen arloa, gainera.

Interneterako konexioa izatea eskubidea baldin bada eta herri gisa erronka estrategikoa bada, ezin dugu kanpoko operadoreen esku utzi. Errepideak ere publikoak nahi ditugun eran eta horiek enpresa pribatuen esku uztea onartuko ez genukeen moduan, Interneterako konexioak ere publikoak izan beharko luke. Helburu horretan lanean hasteko lehen pausoa saretzea izan zen eta, formula ezberdinak aztertu ostean, irabazi asmorik gabeko kooperatiba osatzea erabaki genuen. Euskal Herrian telekomunikazio burujabetza lantzen joateko bidea da Izarkom. Eta filosofia horren barruan, edozein operadorek bezala, zerbitzuak ematen ditugu.

### **Azpiegituretan ere lan egiten duzue?**

Oso argi genuen hasieratik telekomunikazio zerbitzuak emateko azpiegituretan egon behar zirela. Eus-



Iker Garaialde Etxaburu, Izarkomen Bilboko bulegoaren aurrean.

kaltelek edo Movistarrek beraien sareak egin dituzte eta kasu horietan lotuta doaz azpiegiturek eta operadorea. Guk aldarrikatzen duguna da azpiegiturek publikoak izan behar direla; autoendako errepideak publikoak izatea argi ikusten badugu, nola onartzen dugu hain erraz errepide digitalak enpresa pribatuen eskuetan egotea? Euskal Herrirako azpiegura publiko komunitarioak aldarrikatzen ditugu. Horrelako azpiegitura estrategikoak ezin dira gobernuen eskuetan bakarrik utzi, gizarteak ere parte hartu behar du azpiegitura horien diseinuan eta kudeaketan.

Gure sareak hedatzen hasi ginen Izarkomen, edozein operadoreentzat irekiak eta libreak. Baina nola

operadore zerbitzua ere ematen dugun, gaienerako operadoreentzat kompetentzia ginela ikusi genuen eta nolabait banandu behar genituela sareak egitea eta zerbitzuak ematea. Hala, Udalbiltzarekin batera sortu genuen EHKom proiektua. Erakunde neutrala da EHKom eta operadoreek ez dute kompetentzia moduan ikusten.

**Zerk bereizten du Izarkom gainontzeko beste telekomunikazio operadore horietatik?**

**Nola onartzen dugu hain erraz errepide digitalak enpresa pribatuen eskuetan egotea?**

**GURE KULTURAREN  
KOLORE GUZTIAK**

**LEITZARAN**  
grafikak

Gudarien Hiribidea 29  
20140 Andoain (Gipuzkoa)  
Tf: 943 30 35 10  
[www.leitzaran.eus](http://www.leitzaran.eus)  
[grafikak@leitzaran.eus](mailto:grafikak@leitzaran.eus)



Izarkomeko lantaldea.

Helburuak bereizten gaitu. Besteen helburua etekin ekonomikoa ateratzea da, gizarteak duen behar baten bidez negozioa egitea. Gurea kontrakoa da. Guk nahi duguna da gizarteari behar duen zerbitzua ematea, helburua etekin ekonomikoa izan gabe.

Hiritan ez da sarbide arazorik egoten. Baina landa eremuetan adibidez badaude arazoak zenbait baserritan. Internetera konexioa eskubidea baldin bada, horiei ere zerbitzua eman behar zaie eta konexioa bermatzeko beharra dago. Zerbitzu hori hartzaileentzat eskuragarri izan behar da ekonomikoki ere.

### **Eremu erdaldunean nola moldatzen zarete hornitzaile eta abarrek euskaraz egiten?**

Hornitzaile askorekin erdaraz egin beharra dugu. Guk eskatzen diegu zerbitzua euskaraz ematea, baina etengabeko borroka da. Zenbait zerbitzu euskaraz eskaintzea lortu dugu, baina hornitzaileek guregandik pasa gabe ematen dituzten zerbitzuak erdaraz dira. Espainian lau sare daude eta horietara mugatu

behar gara. Horiek bidaltzen dituzten mezuak, adibidez, beste estatu batean roaminga aktibatzen zaizunean, beraien sareetatik bidaltzen dituzte. Gure apustua da horiek ere euskaraz izatea, hori aztertzen ari gara. Hornitzaileek badakite zer lortu nahi dugun eta askok laguntzen digute, baina beste batzuek esaten digute ezin dela egin.

### **Sei urte ditu zuen kooperatibak. Zein bide egin duzue?**

Aurten sei urte egin ditugu, baina hasieran beste erritmo batean aritu ginen. Pandemia garaian, ikasle guztiak etxera joan zirenean, asko geratu ziren konexio gabe eta hor hartu genuen erabakia mugikorreko sim txartelak ikasleei koste prezioan banatzearena; hau da, ikasle horien konektibitatea bermatzeko kanpaina jarri genuen martxan. Orditik hona igoera handia izan du Izarkomek. Hasieran jardun erdira zegoen lan-kide bat eta, ikasleen arteko kanpainatik aurrera, bi langile sartu ginen jardun osoan; azken urteotan 12 langile izatera pasa gara. Garapena izugarria izan da. Lokal bat parte-

katzen genuen lehen; orain bi lokal propio ditugu, bat Iruñean eta bestea Bilbon, eta laster Iruñean beste bulego bat irekitzeko proiektua dugu eskuartean. Dagoeneko, 3.500 bazkide-tara iristear gaude.

### **Zein dira etorkizunera begira dituzuen erronkak?**

Gure proiektua ezaguraztea da erronkarik handiena. Beste operadoreek dirutza handiak erabiltzen dituzte produktuak iragartzeko eta guk, alde batetik, ez dugu diru hori, ez dugu mailegurik edo bazkide kapitalistik. Eta, bestetik, oso zaila egiten zaigu iragarki batekin bakarrik Izarkom zer den adieraztea. Hurrengo urteko erronka hori izango da, bazkideen laguntzari esker ea lortzen dugun gure proiektua gehiago zabaltzea.

**Izarkomen  
Hizkuntza  
Politika:**





**IBON CALVO**  
ULMA TALDEKO LEHENDAKARIA

## “Ezin dira ULMA, Oñati eta euskara banandu”

Oñatin jaio zen talde kooperatibo industrialia da ULMA. 9 negoziok osatzen dute eta negozio horiei zerbitzuak eskaintzeko sortu zen ULMA Taldea. ‘Zerbitzua euskaraz’ eskaintzen du ULMA Taldeak eta Bai Euskarari Saria jaso dute aurten.

### Bai Euskarari Saria jaso duzue. Zer da zuentzat sari hau jasotzea?

Alde batetik, errekonozimendua, euskararekin lotutako lanaren aitortza. Urte askotan zehar egindako esfortzu eta dedikazioaren aitortza da, eta hori beti da pozgarria. Albisteja jaso genuenean, benetan pozgarria izan zen eta harrotasun puntua sentitu genuen. Ez da egunero jasotzen horrelako errekonozimendurik, eta horrek gure lana eta ahaleginak balioesten direla erakusten du.

Enpresa talde mailan pozgarria da, dudarik gabe. Baina hori ez da guztia. Pozgarria da baita ere urte askotan zehar euskara planetan eta euskara bultzatzen aritu diren pertsona guztiengatik. Pertsona horiek guztiak, beren lan isilean eta konpromisoarekin, euskararen bizi-raupena eta garapena ahalbidetu dute ULMAn.

### ULMA taldeak dimentsio handia du gaur egun. Datu batzuk emango dizkiguzu?

60 urte baino gehiago dituen proiektu sozioenpresarial industrial kooperatiboa gara. Mundu mailan erreferente bihurtu gara eta lortutako dimentsioak harritzen jarraitzen gaitu. Gure proiektua 9 kooperatibak osatzen dute, eta gaur egunazken urtean mila milioi euro baino gehiago 1.141 milioi euro fakturatzen fakturatu ditugu. 5.600 pertsonak lan egiten dute ULMA proiektuan mundu osoan zehar, eta 80 herrialde baino gehiagotan gauden presente. Honek guztiak zirrara eragiten du, eta gure proiektua mundu mailako erreferente bihurtzen du, gu bezalako proiektu asko ez baitaude.

ULMA eta Oñati elkarrekin lotuta daude. ULMAn pentsatzen duzunean, Oñati datorkizu burura, eta Oñatin pentsatzen duzunean, ULMA. Lotura hori nabarmena da eta asko eragiten du.



Ibon Calvo, ULMAn egoitzan.

### Enpresa industrial handiak baina oso errotuta inguruan. Zer da euskara ULMArentzat?

ULMA eta Oñati batuta doazela esan dut lehen eta Oñati oso herri euskalduna izanik, euskara oso garrantzitsua da ULMArentzat ere. Oñatiko kultura eta izateko era euskararekin bat doaz. ULMA eta Oñati banandu ezin diren moduan, ezin dira ULMA, Oñati eta euskara banandu.

### Euskara planekin lanean ari zarete urtetan. Nola garatzen dituzue?

ULMA Taldea bederatzi kooperatibek osatzen dute, baina errealitate oso ezberdinak dituzte. Tamaina aldetik, badaude 30 40 pertsonak inguru osatzen dituzten kooperatibak, eta baita 2.300 pertsonak lan egiten dutenak ere. Bestalde, batzuk Oñatin kokatuta daude eta bazkide-langileak Oñatin bertan bizi dira, baina beste batzuk bazkideen %50-60 kanpoan. Beraz, oso errealitate ezberdinetatik heltzen diogu euskararen gaiari. Hori ikusita, urteetan zehar kooperatiba bakoitzak bere euskara plana izan du, bakoitzaren errealitateari eta baliabideei egokituta.

Normalean, kooperatibetatik lantzen dira euskara planak. Hala ere, talde mailan ere Euskara Batzordea dugu eta negozio bakoitzeko kooperatibetako ordezkariak parte hartzen dute bertan. Batzorde horrek garatzen eta koordinatzen du ULMA Talde mailako Euskara Plana, Emun aholkularitzaren laguntzarekin. ULMA Taldea bigarren mailako kooperatiba da; bere bazkideak beste kooperatibak dira, eta guk taldeko negozioei zerbitzua ematen diegu. Zerbitzu horiek euskaraz izateko eginbeharrak zehaztuta daude, eta horiek betetzeko lanean dihardugu.

Euskara planak garatzerakoan, saiatzen gara talde mailan gutxieneko eginbeharrak ezartzen gainerako kooperatibei, eta hortik aurrera kooperatiba bakoitzak bere ibilbidea egin dezake. Hori izaten da ohiko funtzionamendua. Kooperatiba bakoitzak bere egoera berezia duenez, bakoitzak behar eta baliabide ezberdinak ditu euskararen erabilera sustatzeko. Horregatik, garrantzitsua da bakoitzak bere plana eta estrategiak garatzea, baina betiere talde mailan

adostutako gutxienekoak errespetatuz eta denok elkarrekin euskara planean aurrera eginez.

Horrela, lortzen dugu euskararen erabilera eta presentzia ULMA Talde osoan modu koordinatu batean bultzatzea, kooperatiba bakoitzaren berezitasunak eta beharrak kontuan hartuta. Kooperatiba txikiagoentzat erronka handiagoa izan daiteke baliabide mugatuak izategatik, baina taldearen laguntzarekin eta aholkularitzarekin, aurrera egiten saiatzen gara, denon artean.

### Zeintzuk izaten dira gutxieneko eginbehar horiek?

Euskara planak definitzea, Euskara Politikak definitzea, organoko bilera nagusienetan euskararen erabilerean jarraipena egitea eta adierazleak ezartzea, besteren artean.

### Zein da euskarari dagokionez orain duzuen erronkarik handiena?

Nazioarteko kooperatibak eta negozioak ditugu, herrialde askotan presentzia dugu eta konturatu gara hizkuntzak egoki kudeatzeko beharra dugula. Hizkuntza ezberdinetan lan egiten dugu eta horiek kudeatu behar dira, gure komunikazioa eta lana eraginkorra izateko. Euskarak, gutxienez, beste hizkuntzek duten maila izan beharko luke, baina jakin badakigu ULMA euskarak duen pisua handiagoa dela. Gure Estatutuetan ere jasota dugu lan hizkuntza euskara izango dela, eta hizkuntzen ekosistema osoa kudeatzea izango da gure etorkizuneko erronka nagusia.

Gainera, hori pauso logikoa da. Gaur egun proiektuan sartzen diren gazte gehienek euskaraz ikasi dute eta lan mundura euskararekin datoz. Pauso hori eman beharra dugu eta ari gara horretan lanean.

Nola kudeatu hizkuntzak? Euskararekin lanketa garatua dugu, baina beste hizkuntza asko ere kudeatu behar

**Urteetan zehar kooperatiba bakoitzak bere euskara plana izan du, bakoitzaren errealitateari eta baliabideei egokituta.**



**Koop**  
**mitxelena**

TAMAINA HANDIKO PIEZEN MEKANIZATUA

Eztiago Industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus



ULMA Taldeko Euskara batzordea.

ditugu: alemana, frantsesa, italiarra, ingelesa... Hizkuntzak kultura ere markatzen du neurri handi batean, eta hori guztia kudeatzea erronka handia da.

Aurrerantzean, hizkuntza ekosistema aberats eta orekatua sortzea izango da gure lehentasunetako bat, eta horretan ari gara lanean.

### **Bai Euskarari Ziurtagiria duzue aspalditik. Zer balio ematen dizue ziurtagiriak?**

2006tik dugu Bai Euskarari Ziurtagiria. Ziurtagiri honek ikusgarritasuna ematen digu, eta ULMA Taldera datozen bezeroen, hornitzaileen eta bisitarien aurrean argi erakusten du hemen euskaraz egiten dugula. Barruan lan egiten dugunontzat ere, sarreran jarrita dagoen pegatina hori identifikazio eta harrotasun ikur bat da, eta euskararen erabilera nabarmendu egiten dugu eguneroko jardunean.

### **Zein dira etorkizunerako dituzuen erronkak talde bezala?**

Gure erronka nagusia egindako lana sendotzea eta finkatzea indartzea izango da. Azken bi urteotan bilakaera nahiko ona izan dugu, eta egoera aldakor honetan negozio aldetik posizioa finkatzea hobetzea da gure helburua.

Beste alde batetik, gure erueda kooperatiba da eta koo-

peratiban sinesten dugu, baita kooperatibaren printzipio eta baloreetan ere. Horiek bultzatzen eta zabaltzen jarraitu behar dugu, bereziki sartzen diren langile eta bazkide berriengan.

Gure egiteko moduak eta hartzen ditugun erabaki askok kooperatibaren printzipio eta balioen eragina dute. Kooperatibaren helburua kalitatezko eta etorkizuneko lana sortzea da, jasotako proiektua hobetuz eta ondorengoei egoera hobean utziz. Hori gutxi gorabehera denok dakigu, baina eguneroko jardunean bisio hori galtzeko arriskua dago. Eta ez dugu galdu behar.

Hortaz, gure konpromisoa da lan egitea gure kooperatibaren printzipio eta baloreak indartzeko, langile eta bazkide berriei horiek transmitituz eta gure eguneroko jardunean txertatuz. Kooperatibaren helburu eta baloreak beti presente izan behar ditugu, kalitatezko lana eta etorkizun hobe bermatzeko.

**Kooperatibaren helburu eta baloreak beti presente izan behar ditugu, kalitatezko lana eta etorkizun hobe bermatzeko.**

# Osasun mentala, aniztasunaren kudeaketa eta talentua mintzagai, “Elkarrengandik ikasiz” solasaldietan

Bai Euskarari Elkarrengandik *Elkarrengandik Ikasiz* solasaldiak antolatu ditu laugarrenez, Kutxa Fundazioak babestuta. Hiru lagun elkartu eta solasean jarri ditu aurten ere, kamera aurrean, aurkezle baten gidaritzapean bakoitzaren ikuspuntua azaldu, eztabaidatu eta elkarrengandik ikasteko asmoz. Hiru gai, hiru solasaldi, hamaika parte-hartzaile, eta beste hainbat hari mutur; jarraian, laburrean bada ere, bildu ditugunak.

## Buru osasuna: enpresetan ere kudeatu beharrekoa

Osasun mentalaz eta lanaz, osasun mentalak enpresetan duen pisuaz aritu ziren Izaskun Landaida Eragin Fundazioko zuzendaria, Larraitz Urrestilla Orkliko giza baliabideetako arduraduna eta Aitor Guisasola Osalaneko Lan Osasuneko arduraduna, Arantxa Arza Euskadi Irratiko Osasun Etxea saioko aurkezleak gidatuta.

Arzak jarri zuen datua mahai gainean: “Munduko biztanle guztietatik zortitik batek du buru osasun arazoren bat. Gurean, 30 urtetik beherako gazteen artean, seitik batek tratamendu psikiatrikoa jasotzen du, eta depresioa da buru osasunari lotuta hedatuen dagoen gaixotasuna”. Hala, hausnarketarako gaia dela aitortu zuen, baita enpresa munduan ere.

Aitor Guisasolak enpresen kudeaketan jarri zuen azpimarra: “Osasunaz ari gara, baina osasun hori lortzeko kudeaketa behar dugu. Ez da medikuek lortuko duten osasun maila, baizik eta kudeaketak emango diguna”. Bada, prebentzioa aipatu zuen horren giltzarri gisa: “Prebentzioaren kudeaketak ekarriko digu osasuna enpresan eta hori lortzeko egin behar dugu lan”.

Guisasolak esandakoari lotuta, Larraitz Urrestillak azaldu zuen enpresetan presente dauden faktoreek baldintzatzen dutela hein handi batean langileen osasun egoera: “Lan karga, norberaren rola, harremanak eta komunikazioa, lidergo mota... Segun eta nolako ekosisteman zauden, horrek eragin dezake zure osasun mentalean arazoa sortzea”.

Hala ere, oharra egin zuen esanez, batzuetan, langilearen buru osasun egoera txarra enpresatik kanpoko faktoreek eragin dezaketela: “Hala ere, arazoa hor dago, eta langilea ez badago ondo, ez da gai eguneroko erronka eta betebeharrei erantzuteko. Beraz, egoera hori nahiz eta enpresan ez sortu, enpresak hor esku hartzea bada bidezkoa”.



Eta kudeaketa hori errazteko daude Eragin Fundazioa bezalako bidelagunak. Izaskun Landaidak azaldu zuenez, enpresei hobariak eskaintzen zaizkie buru osasun arazoak dituzten pertsonak kontratatzeagatik, eta Eragin horien berrri emateaz arduratzen da, beste hainbat lanez gain: “Enpresen eta buruko osasun arazoak dituzten langileen arteko bitartekari lanak egiten ditugu: gure erabiltzailea lanean dagoen bitartean, sortu daitezkeen arazoak eta eguneroko egoerak kudeatzen saiatzen gara”.

Solasaldia osorik:





## Aniztasunaren kudeaketa, etorkizuneko erronka

Aniztasunaren kudeaketaz hitz egin zuten Javier Arrieta Deustuko Unibertsitateko irakasleak eta Iñaki Lete ABB Niessen enpresako zuzendariak, Joanes Marquet Enpresabideako kazetaria bitartekari zutela.

“Legediaz harago, zerk bultzatzen du enpresa bat aniztasunaren kudeaketa egitera?” Joanes Marquetek egindako galderari erantzunez, Javier Arrietak azaldu zuen, lehenik eta behin, enpresei komeni zaiela etxe barruan giro ona nagusitzea. Hortik abiatuta, nabarmendu zuen enpresak ez daudela isolatuta: “Enpresak kokatzen dira gizarte jakin batean, eta hor askotarikoak diren egoera pertsonalak daude; hau da, pertsona zaurgarri asko daude, eta gizarteari enpresak egiten dion ekarpena garrantzitsua da, gizarteak horrela eskertuko diolako”.

Iñaki Letek, berriz, azpimarratu zuen aniztasun planak ezinbestekoak direla enpresak erakargarriak bihur daitezen: “Prest egon beharko dugu, errealitatea asko ari delako aldatzen. Askotariko pertsonak erakarri behar ditugu lan-taldeetara, eta horretarako, lehendabizi, planak sortu behar dira”.

Solasaldia osorik:



## Talentua eraiki egiten da, ez bilatu

Talentua izan zuten hizpide Jon Gurrutxaga Gipuzkoako Foru Alkundiko Berrikuntzako zuzendariak, Ainhoa Fernandez ULMA Packagingeko giza baliabideetako arduradunak eta Edurne Ruiz Mondragon Unibertsitateko irakasleak, Jasone Aretxabaleta INDEU-Seko Marketin arduraduna gidari.

Aretxabaletak, Cotec Fundazioaren azken datuak eskutan, esan zuen Euskadiko talentuaren indize orokorra Alemaniakoaren parekoa dela, eta galdera botatzen hizlariei: “Ados al zaudete datuekin?”

Hirurek egin zuten bat baiezkoan, baina segituan mahaigaineratu zituzten talentuari lotutako euren kezkek, erronkak eta hausnarketak. Edurne Ruizek, esaterako, gazteen beharrak ezagutzearen garrantzia azpimarratu zuen: “Lehen ikasketetan eta esperientzia profesionalean jartzen zen fokua, baina egun jakin behar dugu gazteek zer nahi duten, zeri ematen dioten lehentasuna, zeri dioten beldurra...”. Izan ere, Ruizen hitzetan, informazio hori izango da, hein batean, enpresa bat erakargarri egitea ahalbidetuko duena.

Gurrutxagak, berriz, azaldu zuen enpresak konturatu direla harrobia landu behar dutela pertsonak erakartzeko: “Enpresak unibertsitateetara, eredu dualera, jotzen dute talentua aurkitzeko. Izan ere, ikasleek praktikak enpresan egiten badituzte euren ikasketak amaitu baino lehen, gero errazagoa da bertan gelditzea”.

Hortik haratago, Ainhoa Fernandezek aitortu zuen enpresak aspaldi konturatu zirela ezin zutela gizarteak eurek behar zuten talentua sortu arte itxaron eta horregatik egiten dutela harrobiaren aldeko apustua: “Eredu duala bezalako formakuntza planekin enpresok ere hartzen dugu parte ikaslearen garapen horretan, eta etorkizunean, are gehiago. Izan ere, lan hori egin ezean, ezin diogu gizarteari behar dugun talentua eskatu”.



Solasaldia osorik:



# Barañaingo 38 enpresak eta saltokik jaso dute Bai Euskarari Ziurtagiria

Bai Euskarari Elkartek hamaseigarren urtez banatu ditu Ziurtagiriak Barañaingo 38 entitatek euskararen alde emandako pausoen aitortza gisa. María Lecumberri Barañaingo alkateak eta Ibon Arrizabalaga de Mingo Bai Euskarari Elkarteko zuzendariak eman zituzten bereizgarriak, udaleko alderdi guztietako zinegotziekin batera.



## 41 entitate berri

Urtarriletik ekainera bitartean 41 entitatek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria, enpresan euskara erabili eta sustatzeko helburuarekin. Zorionak eta ongi etorri Bai Euskarari komunitatera!

1. Adela Garteiz
2. Arabako Hockey Federazioa
3. Arruti Ahizpak
4. Arruti Natur Denda
5. Arte Garbi garbiketak
6. Aspargi
7. Badegi Aholkulariak
8. Bar Sahatsa
9. Centro de Estudios Inatec S.L
10. Dindaia Fundazioa
11. Eroski City - Lezo
12. Gamesa Energy Transmission, S.A.
13. Garagart
14. Garbiñe Arraindegia
15. Hada Créations
16. Harago Koop. Elk. Txikia
17. Harira
18. Iraun Nutrizioa eta Entrenamendua
19. Itzel
20. Jimmy Jazz Gasteiz
21. Kalostrape
22. Kimaya Estetika Ekologikoa
23. Lau Auto
24. Lezoko Estankoa
25. Lopetegi Harategia
26. Marin mon copain
27. NEO
28. Ona Ona
29. Optika Lezo
30. Oreka IT - Gipuzkoa
31. Otsoa autokarabanak
32. Panpox
33. Restaurant Etchebarne jatetxea
34. Sastrako Kirol Zerbitzuak S.L.
35. SEAVI workspace
36. Sigacus SL
37. Studio Izaskun Amiano
38. Taloka Gozotegia
39. Tiñelu
40. Txingurri
41. Xarma

Ikusi Euskararen  
Mapa:



## Euskaraz lan egiteko eta bizitzeko bidean eredu dira Gernika-Lumoko 23 entitate

Euskararen aldeko konpromiso erakutsi eta euskara lan arloan sustatzen duten 23 entitate daude gaur egun Gernika-Lumon. Horien lana aitortzeko ekitaldia egin zen martxoaren 6an, Bai Euskarari Elkarreak eta Gernika-Lumoko Udalak antolatuta. 2008an sinatu zuten lehenengoz hitzarmena elkarteak eta udalak, eta, Ziortza Bilbao Euskara zinegotziak esan duenez, "beste urte askotan" elkarlanean jarraitzea espero dute.



## Batu Gasteizko Euskararen Mapara!

Gasteizko Udalak eta Bai Euskarari Elkarreak duten hitzarmenari esker, modu erraz batean euskara txertatu ahal izango dute enpresek: **Gasteizko enpresek bi urteko doako zerbitzua** jasoko dute Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzegatik eta 3. urteik aurrera kuotaren %50-75 artean murrizten duen Gasteizko Udalaren diru-laguntza esatzeko aukera izango dute.

Informazio gehiago:



## Euskara lanean txertatzeko praktika onak, Euskaragileen eskutik


Euskara planen dinamikan abiatu nahi duten enpresei zuzendutako topaketa antolatu zuen Bai Euskarari Elkarreak Irizar kooperatiban, Euskaragileak proiektuaren barruan. Euskara planen inguruko zalantzak argitzea eta jakintza partekatzea izan zen topaketaren helburua. 30 bat lagun elkartu ziren; enpresa, administrazioa eta aholkularizetako ordezkariak.

*Nondik hasi euskara plana lantzen?* izan zen gai nagusia eta euskara planetan aurreratuta dauden bost enpresatako praktika onen berri eman zuten: Cikautxo, Elay, Mondragon Korporazioa, Eika eta Irizar. Hitzaldien ostean bisita egin zuten Ormaiztegi instalazioetan.



Ikusi laburpen bideoa:





#EnpresareanAzoka2024

# Adimen artifiziala, (u)topikorik gabe

Eragin ekonomiko, sozial eta legala

URRIAK

24

Orona Ideo  
(Hernani)



 [enpresarean.eus](https://enpresarean.eus)

Antolatzailea

**enpresarean**



Babesle nagusia

Gipuzkoako Foru Aldundia



ETORKIZUNA ORAIN

Laguntzaileak

Hernaniko Udala



LABORAL Kutxa

Orona Fundazioa